

BALOREZKO PROPOSAMENA

·Zer behar edo arazo konpontzen duzue?

Demagun kalimotxo bat hartu nahi duzula, baina ez duzula dirurik edo denborarik taberna batera joateko, ezta edariak banaka erosi eta etxean prestatzeko ere. Egoera horretan, gure produktuak irtenbide eroso eta azkar bat eskaintzen du, dena prest baitator latan.

Gainera, latako formatuak garraioa asko errazten du. Edaria motxilan edo poltsa batean eraman daiteke arazorik gabe, edalontzian eramatea baino praktikoagoa delako eta isurketak saihesten direlako. Horrez gain, ez da edalontzirik behar, eta, ondorioz, ez dago gero garbitu beharrik. Horrek denbora eta ahalegina aurrezten ditu, batez ere egoera informaletan edo kanpoan zaudenean.

·Zer bereizten zaitu eta, beraz zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Alde batetik, gure produktua berritzailea da, izan ere, lehenengoak izango ginateke kalimotxoa latetan merkaturatzen. Berritasun horrek interesa piztuko luke bezeroen artean, ohiko formatuetatik desberdina delako eta esperientzia berri bat eskaintzen duelako.

Bestetik, produktuaren erabilgarritasuna da gure indargune nagusietako bat. Eroso, praktiko eta prest dagoenez, bezero askorentzat aukera erakargarria izango litzateke. Horregatik, uste dugu merkatuan jarrera ona izango lukeela eta bezeroak prest egongo liratekeela produktu honen truke ordaintzeko, eskaintzen duen erosotasunagatik eta berrikuntzagatik.